

EKOLOGISTAK MARTXAN

"EKOETXEA" - PELOTA 5 - 48005 BILBAO

Tlf: 944790119 - CIF: **G-95136115**

www.ekologistakmartxan.org

bizkaia@ekologistakmartxan.org

komunikazioa@ekologistakmartxan.org



NOTA DE PRENSA:

EKOLOGISTAK MARTXAN MANIFIESTA QUE

BIZKAIA RECICLO EN EL 2013

EL 36,5% DE LOS RESIDUOS URBANOS GENERADOS

NO EL 50% QUE AFIRMO LA DFB

La Diputación Foral de Bizkaia ha hecho públicos recientemente los datos sobre los residuos urbanos generados y tratados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Estos datos están recogidos en un informe que la Diputación Foral denomina el *Observatorio Permanente de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia*.

Aunque la Diputación Foral de Bizkaia afirma que la metodología utilizada en el Observatorio se adapta a la normativa que se deriva de la aplicación de la Directiva Marco de Residuos 2008/98/CE (DMR), sin embargo el estudio elaborado por el profesor de la UPV/EHU, Gorka Bueno y del que se hace eco Ekologistak Martxan, demuestra que el Observatorio incurre en graves errores metodológicos de diversa naturaleza. A causa de estos errores, la Diputación Foral de Bizkaia proporciona una serie de indicadores relativos al tratamiento de Residuos Urbanos (RU) para el año 2013 que, además de ser incorrectos, trasladan a la ciudadanía una imagen distorsionada de la realidad del tratamiento de RU en Bizkaia.

De una forma resumida manifestamos :

- La Diputación Foral de Bizkaia afirma que en 2013 “la recogida y separación selectiva de los residuos urbanos en Bizkaia alcanza el objetivo europeo del 50%”. La metodología de cálculo de este indicador por parte de la DFB, sin embargo, no se ajusta a la metodología europea para la recopilación de datos referentes a los residuos urbanos (RU).
- Este estudio ha recalculado el porcentaje de RU preparados para la reutilización y el reciclado, junto a otros indicadores relacionados con el tratamiento de residuos en Bizkaia en 2013. **Estos cálculos se han realizado aplicando la metodología europea a los datos proporcionados por la Diputación Foral de Bizkaia. Según estos cálculos en 2013 se derivaron al reciclado en Bizkaia el 36,5% de los RU tratados (214.337 t)**, un porcentaje significativamente inferior al dado por la Diputación. El flujo a vertedero ascendió al 24,8% (145.908 t), también mayor que el indicado por la Diputación. El flujo de residuos eliminados pudo ascender a casi el 39% de todos los residuos tratados, ya que la planta incineradora de Zabalgarbi incineró residuos sin generar electricidad, y por tanto sin posibilidad de valorización energética, durante más de cuatro meses a lo largo de 2013.
- Los datos del Observatorio de Residuos referido, ponen de manifiesto la grave asignatura pendiente que tiene todavía Bizkaia con la Recogida Selectiva de Materia Orgánica (0,6 % en el 2013) y posterior elaboración de COMPOST, habiéndose fijado un Objetivo en el II PIGRUB de alcanzar para el 2016 un 4%.

-
- La 2ª revisión del IPIGRUB reconocía en 2012, indirectamente, que el mapa de infraestructuras de gestión de RU de Bizkaia no permitirá cumplir con el objetivo de reciclado marcado para 2020 por la UE (50%).
- La 2ª revisión del IPIGRUB califica el mapa de infraestructuras de gestión de residuos urbanos de Bizkaia en 2016 como “completo”, con la entrada en funcionamiento de la planta de compostaje y la TMB (pág.107). De los datos anteriores se concluye que este mapa “completo” no garantizaría el nivel de reciclado de materiales exigido por la DMR para 2020, y tampoco evitaría que un importante flujo de residuos reciclables y compostables fueran incinerados en Zabalgardi (155.720t de RU recogidos en masa).

Por todo ello manifestar que en el 2013 se ha alcanzado el 50% de reciclaje en Bizkaia nos parece a Ekologistak Martxan muy peligroso, pues distorsiona una realidad, realidad ante la que es necesario no ser complacientes y bajar la guardia, sino todo lo contrario: Es preciso perseverar para alcanzar al menos las cotas de reciclaje según parámetros europeos de medición, poniendo medios e infraestructuras que permitan alcanzar estos objetivos.

Bilbao 1 de abril de 2014

Comisión de Residuos de Ekologistak Martxan Bizkaia

Anexo : Se adjunto estudio del profesor de la UPV Gorka Bueno.

EKOLOGISTAK MARTXAN

"EKOETXEA" - PELOTA 5 - 48005 BILBAO

Tlf: 944790119 - CIF: **G-95136115**

www.ekologistakmartxan.org

bizkaia@ekologistakmartxan.org

komunikazioa@ekologistakmartxan.org



PRENTSA-OHARRA:

EKOLOGISTAK MARTXAN ELKARTEAREN ESANETAN, BIZKAIK SORTUTAKO HIRI-HONDAKINEN %36,5 BIRZIKLATU ZITUEN 2013.

URTEAN ETA EZ BFAK BAIEZTATUTAKO %50

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan sortutako eta tratatutako hiri-hondakinei buruzko datuak argitaratu berri ditu. Datu horiek, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiko *Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakinen Behatoki Iraunkorra* txostenean azaltzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak baieztatu egin du behatokian erabilitako metodologia Hondakinei buruzko 2008/98/EE Esparru Zuzentaraua (HEZ) ezartzean sortutako araudira egokitzen dela. Hala ere, EHUko Gorka Bueno irakasleak egindako eta Ekologistak Martxan Elkarteak zabalduko azterlanean bertan egiaztatzen denez, behatokiak zenbait eratako akats metodologiko larriak egin ditu. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko urteko hiri-hondakinen (HH) tratamenduari buruz eskaintzen dituen zenbait adierazle ez dira zuzenak, eta, horrez gain, Bizkaiko HHen tratamenduko errealitatearen irudi desitxuratu eskaintzen diete herritarrei.

Honako haxe adierazi nahi dugu labur-labur:

- Bizkaiko Foru Aldundiak baieztatu duenez, 2013an "Bizkaiko hiri-hondakinen gaikako bilketak eta banaketak Europako helburua den %50era iritsi dira". BFAk adierazle hori kalkulatzeko erabili duen metodologia ez dator bat Europar hiri-hondakinei (HH) buruzko datuak biltzeko erabiltzen duten metodologiarekin.
- Azterlan horretan, hain zuzen ere, berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatutako HHen ehunekoa birkalkulatu da, baita Bizkaiko 2013ko hondakinen tratamendurekin lotutako beste adierazle batzuk ere. **Kalkulu horiek egiteko orduan, Europako metodologia ezarri da Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako datuetan. Kalkulu horien arabera, 2013an tratatutako HHen %36,5 birziklatu ziren Bizkaian (214.337 t), eta ehuneko hori aldundiak emandakoa baino askoz txikiagoa da.** Bestetik, zaborte girako fluxua %24,8ra igo zenez (145.908 t), aldundiak adierazitakoa baino handiagoa ere izan da. Tratutako hondakin guztiak kontuan hartuta, ezabatutako hondakinen fluxua %39 ingurukoa ere izan ahal izan zen, Zabalgarbiko erraustegiak elektrizitaterik sortu gabe erraustu zituelako hondakinak eta, horren ondorioz, 2013ko lautik gora hilabetetan balorizazio energetikorik egon ez zelako.
- Hondakinen Behatokiko datuak kontuan hartuta, ageri-agerikoa da oraindik ere Bizkaia rentzat konpondu gabeko arazo larria dela gai organikoaren gaikako bilketa (%0,6, 2013an), baita osteko KONPOSTGINTZA ere. Era berean, oso kontuan hartu beharra dago 2016rako lortu beharreko helburua %4koa dela, II. BUHKPin adierazitakoaren arabera.

- 2012. urtean, II. BUHKPIren bigarren berrikuspenean zeharka onartu zen Bizkaiko HHak kudeatzeko azpiegituren maparen ondorioz ezinezkoa izango zela EBk birziklapenaren arloan 2020rako zehaztutako helburua betetzea (%50).
- II. BUHKPIren bigarren berrikuspenean azaltzen denez, Bizkaiko hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegituren mapa "osatuta" egongo da 2016. urtean, konpostegia eta TMB abian jartzen direnean (107. orrialdea). Aurreko datu horien arabera, argi eta garbi dago mapa "oso" horrek HEZn materialen birziklapenaren arloan 2020rako eskatutako maila bermatuko ez lukeela eta ezertxo ere lortuko ez lukeela, birziklatu eta konpostatu daitezkeen hondakinen fluxu handia Zabalgarbin erraustu ez dadin (multzoan bildutako 155.720 tona HH).

Hori guztiori dela eta, Ekologistak Martxan Elkartearen ustez oso arriskutsua da 2013an Bizkaiko hiri-hondakinen %50 birziklatu direla adieraztea, errealitatea desitxuratzen delako. Errealitate horren aurrean, gainera, ezin gara ezer egin gabe geratu, eta adi-adi egon behar gara. Izan ere, bete-betean lan egiten jarraitu behar dugu, gutxienez Europako neurketa-parametroen arabera birziklapen-maila erdiesteko eta helburu horien lorpenerako baliabideak zein azpiegiturak ezartzeko.

Bilbon, 2014ko apirilaren 1ean

Bizkaiko Ekologistak Martxan Elkarteko Hondakin Batzordea

Eranskina: EHUko Gorka Bueno irakaslearen azterlana erantsi da.